

KIROL-KLUBEN OHIKO JARDUERA ETA EGITURAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK 2022-2023 DENBORALDIA/ 2023.URTEA. (9D-2.A.1/2023 KIKL)

Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizarteak ondo izateko lagungarria.

Aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak, besteak beste, printzipio hauek izango ditu oinarrian; kirol-elkartek bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea; lehiaketa-kirola bideratzea eta sustatzea (2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta kirolarena) eta Udalak eskumen propioa du osasun publikoa sustatzea, kudeatzea defendatzea eta babestea, baita kirola eta kirol jarduerak antolatzeke eta sustatzeko ere (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.10 eta 17.1.19 artikulua).

Azpeitiko Udalak, GAO, 2023-05-08ko deialdiaren baitan argitaratutako dirulaguntzaren xedea da, Azpeitiko kirol-klubek 2022-2023 denboraldian/2023.urteko ohiko jarduera eta egiturak garatzeko laguntza zuzenak ematea, konkurrentziatzeko zuzeneko emakida-prozeduraren bidez.

Aipatutako laguntzen artean, kirol klubek ohiko jarduera egiturak garatzeko zuzendutako dirulaguntzak daude, eta horien emakida 2.A.1. eranskinean jasotako oinarrietan arautzen da. Bere helburua herritar aktibo eta osasuntsuagoaren alde lan egiten duten kirol-elkarteei laguntzea da, hauek jarduera fisikoa modu erregularrean eta egokian egitea bultzatzeko, eta modu honetan herritarren kirol-praktika maila eta maiztasuna handitzeko.

Dirulaguntza horiek arautzen dituzten oinarri orokorreko 9 puntuan ezartzen denez, eskaerak Kirol Saileko teknikariak aztertuko ditu, eta balorazio txostena egingo du. Txosten hori Kirol Batzordeari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren (urriak 27), aurkeztutakoak aztertu ditu Kirol Sailak eta txosten bat prestatu du eskaeren xedea, dirulaguntzak eman eta kopuruak zehazteko irizpideekin bat datorrela egiaztatuz.

Txosten hori lehen aipatutako batzordearen irizpenera jarri da eta Batzordeak 2023ko abenduaren 20ko bileran bere egin du. Ondoren, dirulaguntza horiek emateko prozeduraren ebazpen proposamena igorri dio Alkatetzari.

Kirol Batzorde berriemaileak egindako ebazpen proposamena ikusita, Alkatetza honek prozedura ebatziko du, eta laguntzaren oinarrien 10 artikuluen arabera, deialdiaren ebazpena Udalaren Iragarki taulan eta Web orrian argitaratuko da dirulaguntza programa atalean. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du.

Argitalpen egunaren biharamunetik hasita jakinarazpena egintzat joko da lege ondorio guztietarako. Modu berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko. Estatuko Diru-laguntzen Datu Basean ere argitaratuko da.

Oinarri orokorreko 11. puntuak onartutako laguntzaren ordainketa, ordainketa bakarrean egingo dela arautzen du espedienteari dagozkion eskaera eta zuriketa aurkeztuta dagoelako.

Laguntzaren ordainketak Udalaren 2022ko aurrekontuaren 1.0500.481.341.00.02.2023 "Transf. arruntak, Kirol batzordea partidatik egingo dira.

Eta eskumenari dagokionean Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan dioenaren arabera **ERABAKI DUT:**

Lehen: Kirol-kluben ohiko jardura eta egiturak garatzeko 2023. ekitaldiko diru-laguntza deialdian aurkeztu diren eskaerak ebatzea, Kirol Batzordeak egindako ebazpen proposamenaren arabera.

Espedientea	Onuraduna	ORDAINKETA kopurua
2023KIKL0008	Lagun-Onak FT	7.462,74 €
2023KIKL0009	Iraurgi SB	7.312,95 €
2023KIKL0015	Kodaore Judo Elkartea	2.102,05 €
2023KIKL0003	Azpeitiko Karate elkartea	356,33 €
2023KIKL0007	Ikasberri Kirol elkartea	2.501,60 €
2023KIKL0014	Izarraitz Igeri elkartea	4.591,94 €
2023KIKL0005	Ilunpe pelota elkartea	432,89 €
2023KIKL0002	Lagun-Onak M.B	3.830,61 €
2023KIKL0011	Loretoki Gimnastika kirol kluba	1.034,09 €
2023KIKL0006	Lagun-Onak T.E	2.495,79 €
2023KIKL0016	BIK Racing automobilismo kluba	00,00
	GUZTIRA	32.120,99€

Bigarren: Kontuan izanik kasu guztietan zuriketak behar bezala eginak daudela, oinarriekin bat ordainketa egingo da.

Hirugarrena: Alkatetzaren erabaki hau Udalaren Iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da eta baita Estatuko diru-laguntzen datu basean ere. Modu berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko.

Laugarrena: Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIO AUZI ERRE-

KURTSOA aurkez dezakete interesatuek zuzenean Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegian. Horretarako, BI HILABETEKO epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hala ere, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko alkate honi HILABETEKO epean.

Azpeitia, 2023ko abenduaren 28a



